

Ipar Euskal Herriko demografia

Jean Suhubiette

Lehenik, lan hau presentatu aintzin, gauza bat erran behar da: administrazio frantsesarentzat (INSEE, estatistika ofizialak egiten dituen etxearentzat, bereziki) ez da Euskal Herririk. Departamendua bakarrik ezagutzen du administrazioak: «Pyrénées Atlantiques» deitzen dena. Hau hiru zatitan partitua da: Baionako arrondisamendua, Olorenekoa eta Pabekoa. Lapurdi eta Baxenabarre Baionako Arrondisamendu horretan sartu dituzte, eta Zuberoa Olorenekoan.


Euskal Herrian, 1975eko jende-kontatzeak (hori azken azkena da), 227.815 bizilagun eman ditu, 1968koan 218.089 baziren. Beraz, jendetza 9.726 bizilagunez emendatu da gure Ipar Euskal Herrian. Bertze gauza ohargarri bat: Baionako, Angeluko eta Miarritzeko hiru hiriek, badute kasik jendetzaren erdia (110.431 bizilagun).

I. — JENDETZAREN GOITI-BEHEITIA IPAR EUSKAL HERRIAN IRAGAN DENBORAN

Lehen funtsezko jende-kontatzea 1801eko urtean egin izan da. Ikusten ahal dugu Ipar Euskal Herriko jendetzaren goiti-beheitia azken 150 urte hauetan.

Urteak	Bizilagunak
1801	126.493
1851	162.365
1881	167.317
1901	173.351
1921	175.955
1946	192.989
1962	204.425
1968	218.099
1975	227.815

(Iturria: INSEE)

*Jendetzaren goiti-beheitia Ipar Euskal Herrian*

Lehen gauza bat, ohargarria: jendetza, gure herrian beti goiti ari da, bainan bi zorigaitzeko gertakariak arrastatu dute iganaldi hau:

1. Lehen gudu handia (1914-1918)

Hogei urtez (1901-1921), Ipar Euskal Herriko jendetzak ez du kasik ukan goiti-behetirik. Euskal gazteriaren parte handi bat izan da sarraski horretara eta guti gibelara jin.

2. Emigrazioa Ameriketara eta Frantziako hiriei buruz.


Betidanik, izan da Ipar Euskal Herrian anitz sortze (duela berrogei urte bakarrik familia batzu 8, 9 eta 10 haurrekin... edo gehiagorekin! ikustea ez zen arraro).

Holako ugaritasunak, primantza zelakotz gure Eskubidearen lehen legea (horren arabera etxea bere tresnekin etxeko primarendako zen), askotan etxaldea arrunt tipia zelakotz, anitz gazte bortxatuak izan dira Ameriketara joatera (edo Frantziako hiri haundietara) bere biziaren egiteko.

Baina emigrazioak bertze arrazoin nagusi bat ukan du: 1841ean, lehen Karlistadaren ondotik, ekonomiaren muga Ebrotik ekarri dute orain den tokira eta aldatze horrek gure probintziazako ondorio txarra ukan du: emigrazioa azkartu egin da eta gelditzen ziren jendeak (bereziki muga aldeko jendeak) kontrabandan hasi ziren.

A) Emigrazioa XIXgarren mendean

Urteak	Emigranteak	Urtero
1832-36 (4 urte)	828	208
1836-45 (10 urte)	10.162	1.016
1846-55 (9 urte)	16.111	1.614
1856-64 (9 urte)	12.833	1.425
1865-74 (10 urte)	17.750	1.475
1875-83 (9 urte)	5.157	573
1884-91 (8 urte)	16.421	2.052
Denetara: 60 urte	79.262	1.321

Emigranteak
urtez urte

Estatistika horiek *M. Etcheverryri* esker eginak izan dira. Euskal deputatu zelarrik, 1892an Pauen «Association française pour l'avenir des sciences» aintzinean, egin zuen mintzaldian «Euskal emigrazioa» aipatu zuen. Hona haren solasak (Baionako Euskal Erakustokian ikusten ahal da haren estudioa).

Emigrazioak XIX. mendean bi emendio ukan du:

— 1846-1855 urtean: urte hauetan izan da gosetea (1847) eta 1848ko iraultza.

— 1880aren ondotik: Amerikako bidaia merkexeari, garrarioak hobexeari zirelaketz (eta behar da ere aipatu gizon biltzaileen lana...). Mende hondar horretan, Euskal Herriko anitz haroztegi tipik —frango ziren— gelditu dute bere lana, eritasuna zen mahastietan (Oidium), bihiak kariotuak ziren.

Bazela asko euskaldun gazte jazarlerik notatzen du *M. Etcheverryri*. 60 urtez departamendutik partitu dira: 79.262 bizilagun, baina arte horretan 4.729 bizilagun galdu ditu bakarrik: hiruetarik bi euskaldunak ziren, eta gehienek 15-20 urte zuten (Fran-

tziak, memento berean holako jende gaztearen desterrurik ez zuen ezagutzen).

B) Emigrazioa XXgarren mendean

Bigarren gerla ondotik asko gaztek bertze bizimolde bat, gozoagoa, nahi ukan du. Lan guti zen baserrian eta hona nola berri abiaturik zen emigrazioa hiriei buruz.

Baina, orai kasik etxe guztietan badituzte tresna berri guztiak eta egun arrazoin horrek ez du baliorik.

Laborari gazteek badituzte askotan bi enplegu (eta behar biziitzeko, pagatzeko zor guztiak). Lantegietan hasi dira eta lan horren ondotik bere gurasoak etxeko lanetan laguntzen dituzte, eta gero gurasoen segida hartuko dute.

Baina, askotan anitz lotsatzen dira edo ez dira ausartzen segidaren hartzera eta bada zenbait arrazoi:

Lehenbiziko: bizimolde gozo bat ukateko baserrian, etxaldeek berea behar dute eman eta etxalde gehienak arunt ttipiak dira, ez dute aski ematen.

Bigarrenkorrik: «Ezkualdun gazteriak» egin du inkesta bat 1968 inguruan, eta inkesta horrek erakutsi du nesken emigrazioa bi aldiz azkarragoa dela gizon gazteena baino.

Baionako Komertzio eta Industriaren Ganbarak ere egin du 1972an inkesta bat eta idazten zuen Euskal Herri barneko emigranteen %40ak atzematen zutela lan bat itsas alde horretan, lantegietan, komertzioan edo bertze ofiziotan. Bertze guztiek Frantziako hiri haundietara joan behar ukan dute.

Bainan azken urte hauetan, lana arunt arraroa da eta pensatu behar da gazte gehiagok, eskola bururatuta, joan beharko dutela Parisera bere biziaren irabaztera.

Frantziako lehen ministroak langilearen higikortasuna deitzen du hori eta bada prima anitz higikortasun horren haunditzeko, bainan ohartzen gara zorigaitzez Raymond Barre-ren «Mobilité de la main-d'oeuvre» delakoak beti bide bakar bat duela.

Azken ohar bat: Emigrazioak Californiari eta Nevadari buruz inportantzia guti du egungo egunetan.

Orai Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoko jendetzaren goiti-beheitia azken urte hauetan zein izan den behar dugu ikertu.

II. — JENDETZA AZKEN URTE HAUETAN

1. Lapurdi

Kantonamendua	1968	1975
B. A. B.	103.004	110.431
Bidaxune	4.287	4.087
Ezpeleta	10.016	10.091
Hazparne	7.593	7.523
Hendaia	19.204	20.942
Donibane-Lohitzune	15.994	17.443
Uztaritze	8.521	9.592
<i>Denetara</i>	168.619	179.659

(Iturria: INSEE)

(B. A. B.: 6 kantonamendu).

Eremua: 800 Km².

Km² bakoitzean: 1968: 211 bizilagun, 1975: 225 bizilagun. Ohartu behar dugu: itsas kantonamendu gehienak jendea irabazten ari direla (salbu Hazparne eta Bidaxune —edo guti—).

Erran dezagun ere Lapurdin, %61 biztanle bizi dela B.A.B.-ko hiri horietan.

2. Baxenabarre

Kantonamendua	1968	1975
Iholdi	4.853	4.639
Labastide-Clair.	3.878	4.052
Baigorri	7.280	6.379
Donibane-Garazi	7.144	6.983
Donapaleu	9.635	9.406
<i>Denetara</i>	32.790	31.459

Eremua: 1.284 Km², Km² bakoitzean: 1968: 26 bizilagun, 1975: 25 bizilagun. Probintzia honek 1.331 biztanle galdu du tarte horretan.

Behar da bereziki ikertu zenbat jende galdu duen Baigorriko Kantonamenduak.

3. Zuberoa

Kantonamendua	1968	1975
Atarratze	4.833	4.316
Maule	11.857	11.931
<i>Denetara</i>	16.690	16.247

Km² bakoitzean: 1968: 21 bizilagun, 1975: 20 bizilagun. Galtzea: 443 bizilagun. Zuberoko demografiak badu berezitasun bat: bere Km² bakoitzean ez da 20 biztanle baizik, biziki guti da eta hola tipitzen bada jendetza, bizitza gero eta zailago izanen da; eskolek, postek, trenek ez dute eta ukanen aski «eroslerik» eta bere zerbitzuak geldituko dituzte.

III. — ITSAS ALDEAN ETA MENDI ALDEAN JENDEZAREN MOGIMENDUA

Laburki: Erranen dugu nola Ipar Euskal Herrian, lehen, jende-andana bat bazen baserrietan eta guti itsas aldean (mendi aldean kasik doblea itsas aldean baino).

Orain, aldiz, egungo denboretan, jende gehiago biltzen da itsas aldeko hiri horietan. Ez dugu ikusten egungo kinka ekonomikoarekin, goiti-beheiti hori nola geldituko den.

Urteak	Itsas aldea	Mendi aldea	Denetara
1911	82.825	99.177	188.002
1921	84.395	91.560	175.955
1936	100.375	90.458	190.833
1946	105.417	87.572	192.989
1954	109.054	84.488	193.542
1962	125.964	78.461	204.425
1968	138.222	77.877	218.099
	<i>Lapurdi</i>	<i>Baxenabarre</i> <i>+ Zuberoa</i>	
1975	180.109	47.706	227.815

Zenbait argitasun behar dugu hemen ekarri:

— Bidaxuneko kantonamenduan, badira hiri ttipi batzu Euskal Herrikoak ez direnak: Akhamarre (728 biztanle), Sames (422 biztanle).

— Bastidako kantonamenduan, Beskoitze (1.085 biztanle), Ahurti (1.055 biztanle) Lapurdiko hiriak dira eta ez Baxenabarrekoak.

Hola egin beharko da zuzentzea, aipatu zifra horiek zuzenak izateko.

Hona nola bi jende-kontatzeen artean (1968 eta 1975) emendatu edo gutitu den jendetza Ipar Euskal Herrian (ikus mapa):

Lapurdi	Baxenabarre	Zuberoa
Angelu : + % 19,13	Iholdi ; — % 4,40	Maule : + % 0,62
Baiona : + % 4,58	Bastida : + % 4,48	Atarratze : — % 10,69
Miarritze : + % 3,15	Baigorri : — % 12,37	
Uztaritze : + % 12,55	D. Garazi : — % 2,25	
Bidaxune : — % 4,66	Donapaleu : — % 2,37	
Ezpeleta : + % 0,74		
Hazparne : — % 0,92		
Hendaia : + % 9,05		
D. Lohitzune: + % 9,05		

(Iturria: INSEE)


Orai jendetzaren mugimendu horiek nondik heldu diren aipatu dugu: ea sortzeak heriotzei nagusitzen zaizkienez, emigrazioa inmigrazioari nagusitzen zaionez, edo aldiz?

1. Lapurdi

Gauza ohargarri bat bada probintzia honetan: Angeluko kantonamenduan, jendetza biziki fite emendatzen ari da; urte guztiez, kasik %2,50 irabazten du, gehiena inmigraziotik (%2,18), sortzeak nagusitzen zaizkie heriotzei (%0,32). Berdin da itsas aldeko kantonamendu horietan eta bertzetan (Uztaritzen, etab.).

Miarritzen, heriotzeen kopurua aski haundia da: ‰ (milako) 14,9 (Angelun ‰ (milako) 9 bakarrik); badakigu badela hiri horretan anitz bizilagun bere erretretaren pasatzera heldu dena.

Hazparneko kantonamenduan, bada emigrazio aski haundia: anitz hazpandar gazte joan da zapatagintzako kinkaren ondotik.



JENDEZAREN GOITI-BEHEITIA, BI JENDE-KONTATZE ARTEAN (1968 eta 1975)

2. Baxenabarre

Probintzia honetan, Baigorriko kantonamendua nola hustutzen ari den ikustea ikaragarria da. Hona nola behehitu den jendetza-ren mogimendua (urtero):

Baigorriko kantonamenduan

	1954-1962	1962-1968	1968-1975
Inmigrazioa	— % 1,05	— % 1,47	— % 1,84
Sortze/hiltze	+ % 0,60	+ % 0,25	— % 0,06
Denetara	— % 0,45	— % 1,22	— % 1,90

Donapauleko eta Iholdiko kantonamendu horietan, jendetza-ren ttipitzea emigraziotik heldu da, bada anitz sortze baina lan guti.

Garazin ere, sortzeak urte guttiz gutitzen ari dira (‰ (milako) 12,9 bakarrik, Baigorri: ‰ 11,9). Miarritzen bezala, Frantziatik anitz jende heldu dira beren azken egunak Garaziko kantonamenduan pasatzera. Ohar dezagun: Garaziko eta Baigorriko kantonamenduetan, heriotzeak beti emendatzen ari dira.

3. Zuberoa

Mauleko kantonamenduan, jendetza-ren zifrak ez dira biziki higitzen, baina erran behar da, baita, sortze guttiago dela:

Mauleko kantonamenduan

	1954-1962	1962-1968	1968-1975
Sortzeak	‰ (milako) 18,40	‰ 14,60	‰ 13,50

Baina Atarratzen, gauzak ez dira berdín, jendetza zahartzen ari da, gazteak ez dira egoten kantonamendu honetan (edo gutti), sortzeak guttitzen ari dira, heriotzeak emendatzen.

	1954-1962	1962-1968	1968-1975
heriotzeak	‰ 14,40	‰ 15,40	‰ 17,40
sortzeak	‰ 15,00	‰ 13,80	‰ 9,40

(Iturria: INSEE)

4. Azken puntu bat

Bertze puntu bat behar dugu ikertu: itsas aldeko emigranteak nondik heldu dira? Zorigailte ez ditugu ukan ahal azken zifrak, baina hona 1962-1968 arteko inmigrazioaren sortetria:

Lapurdin 48.500 inmigrante izan da:

18.700	(%38,50)	Departamendutik etorri dira.
6.100	(%12,50)	beste departamendu batetik etorri dira.
12.600	(%26,00)	bertze herrialde batetik etorri dira.
11.800	(%23,00)	bertze herri batetik (Frantzia aparte) etorri dira *.
48.500		

Bertze gauza bat, ohargarria, aipatu behar dugu: zenbat bigarren bizitegi («résidence secondaire») da Ipar Euskal Herrian eta nola banatzen dira?

$\frac{\text{bigarren bizitegi}}{\text{bizitegi nagusi}} = 11,78$ «Pyrénées Atlantiques» departamenduan.

Hona Ipar Euskal Herrian lehen kantonamenduak:

— Donibane Lohitzuneko kantonamenduan	63,87
— Miarrizteko kantonamenduan	38,43
— Hendaiaiko kantonamenduan	37,96
— Atarratzeko kantonamenduan	23,76

(Iturria: INSEE)

* Anitz «Zango beltz» (6.000) Algeriako guduaren ondorik etorriak.

J. S.

LA DEMOGRAFIA DE EUSKADI NORTE LA DEMOGRAPHIE DU PAYS BASQUE NORD

Si se comparan los datos de los censos de 1801 y de 1975, se constata que la población del País Vasco Norte pasa de 126.493 habitantes a 227.815. La curva de la evolución indica, sin embargo, una paralización al rededor de 160-170.000 habitantes entre 1851 y 1921. Este fenómeno se debe a las pérdidas de la guerra del 14-18 por una parte, y al fenómeno migratorio por otra: el máximo se alcanza entre 1884 y 1981 con una media de 2.052 emigrantes por año.

Estos últimos años, entre 1968 y 1975 en particular, se desarrolla un importante movimiento de población en el interior de la región: Laburdi

se desarrolla y pasa de 138.222 habitantes a 180.109, mientras que el interior (la Baja Navarra y Zuberoa) se despoblan peligrosamente y bajan de 77.877 habitantes a 47.706. Hay que anotar igualmente que el crecimiento de Laburdi se hace en gran parte gracias a la inmigración extranjera: sobre los 48.500 inmigrantes del período 1962-1968, solamente el 38-40% son originarios de la región. Además, mientras que la tasa de mortandad crece en los cantones como Tardets (Zuberoa), la tasa de natalidad disminuye correlativamente. He aquí algunas cifras:

	1954-1962	1962-1968	1968-1975
Mortandad / 1.000	14,4	15,4	17,4
Natalidad / 1.000	15	13,8	9,4

Para terminar, cómo no recalcar el fenómeno del desarrollo de las «residencias secundarias» o casas de campo, símbolo y síntoma de colonización. Mientras que en el departamento la proporción residencia secundaria/residencia principal es de 11,78, para el País Vasco Norte se obtienen las siguientes cifras:

Cantón de Saint-Jean-de-Luz	63,83
Cantón de Biarritz	38,43
Cantón de Hendaya	37,96
Cantón de Tardets	23,76

Si l'on compare les données des recensements de 1801 et de 1975, on constate que la population du Pays Basque Nord passe de 126.493 habitants à 227.815. La courbe d'évolution indique cependant une stagnation autour de 160-170.000 h. entre 1851 et 1921. Ce phénomène est dû aux pertes de la guerre 14-18 d'une part, au phénomène migratoire d'autre part. Le maximum est atteint entre 1884 et 1891 avec moyenne de 2.052 émigrants par an.

Ces dernières années, entre 1968 et 1975 en particulier se développe un important mouvement de population à l'intérieur de la région: Le Labourd se développe et passe de 138.222 h. à 180.109, tandis que l'intérieur (Soule et Basse Navarre) se dépeuple dangereusement et baissent de 77.877 h. à 47.706. Il faut également noter que l'accroissement du Labourd se fait beaucoup par immigration étrangère: Sur les 48.500 immigrants de la période 1962-68, 38,40% seulement sont originaires de la région. Par ailleurs tandis que le taux de mortalité s'accroît dans des cantons comme celui de Tardets, le taux de natalité décroît corrélativement.

	1954-1962	1962-1968	1968-1975
Mortalité / 1.000	14,4	15,4	17,4
Natalité / 1.000	15	13,8	9,4

Enfin, comment ne pas relever le phénomène du développement des résidences secondaires, symboles et symptômes de colonisation: Tandis que dans le département la proportion résidence secondaire/résidence principale est de 11,78, on obtient les chiffres suivants en Pays Basque:

Canton de Saint Jean de Luz	63,83
Canton de Biarritz	38,43
Canton de Hendaye	37,96
Canton de Tardets	23,76